

8. PRAKTIKA:

IRRATINOBELAren atal baten idazketa (5-10 minutukoa)

KOKAPENA: Bilboko estudianteen pisu batean.

PERTSONAJEAK:

Maider, donostiarra, Ingeniaritza ikasten ari da. Lehenengo mailan dago, eta Institutuan oso nota onak zituen. Ordu asko sartzen ditu ikasten, baina osteguneko parranda ez du barkatzen. Surfa gustatzen zaio, eta beti Quick Silver, Billabong eta halako markak janzten ditu.

Eneko, bermeotarra. Arte Ederretako hirugarren maila errepikatzen ari da. Beti dago MP3ra itsatsita eta oso musika bitxiak jaisten ditu Internetetik. Oso desordenatua da, baina sukaldari ona. Ikastea denbora galtzea omen da eta hainbat mugidatan sartuta dago: antzerkian, musika talde batean, erakunde ekologista batean...

Iratxe, Laudiokoa. Euskaldun berria eta arazoak ditu hitz egokiak topatzeko, horregatik galdetzen du. Arte Ederretako hirugarren mailan dago eta beti Enekorri apunteak pasatzeko prest horren truke euskararekin laguntzen badio. Barazkijalea den arren, sagardotegira joateko eta txuleta bat probatzeko irrikatan dago. Erretzen duen bakarra da pisuan, eta horrek arazo batzuk sortzen ditu. 1970ko hamarkadako hippien mireslea da eta bakea zein amodioa dira beren lema nagusiak bizitzan. Pixka bat mistikoa dela esan genezake.

Xabi, lesakarra. San Fermin egunean jaio izanak markatzen du bere izaera, ezin liteke beste moduz izan: burugogorra, zintzoa eta maitagarria da. Oso ozen hitz egiten du, baina badaki maitekor izaten. Kazetaritza ikasten du. Bigarren mailan dago, eta bere asmoa liburuak idaztea da. Dagoeneko ipuinak eta poemak idazten ditu, bereziki neskekin ligatzeko. Oso polita denez, arrakasta handia du nesken eta mutilen artean...

Izar Zuberoatik etorri da. Erasmus moduan dago Enpresarialak egiten Sarrikon. Bilbo zaratatsuegia iruditzen zaio eta ez du ulertzen Hegoaldeko ohitura batzuk, haien artean "litroena". Berak etxeetako partiak nahiago ditu kalean hotza pasatzea baino... Patata tortilla asko gustatzen zaio, eta musika espainiarra gorrotatzen du. Gauza asko azaldu behar zaizkio, eta batzuetan beste planetatik datorrela ematen du. Frantses ukitua du hitz egiterakoan...

AURREKO ATALETAN:

Azken jaia oso arrakastatsua izan zen, bereziki, eta beti bezala, Xabirentzat. Dena den, biharamunak ez dira oso goxoak izaten, eta bereziki Enekorentzat, berari baitagokio dena txukuntzen. Izan ere, bere urtebetetzea ospatu dute bertan. Izar poz pozik zegoen, bere gustuko party bat antolatu zuelako, etxean eta musika onarekin. Gaur, berriz, geratzen dena zikinkeria eta desordena besterik ez da. Maidere ohean jarraitzen du, baina ez bakarrik... Xabik, berriz, oraindik ez du ahaztu Amaiak eman zion zaplaztekoa, baina onartzen du pasatu zela, ezin zaiola inori halako proposamenik egin..., are gutxiago azterketa bezperan daudenean. Iratxeri telefonoz deitu diote eta ziztu bizian joan da, inori ezer esan gabe...